

Lanbide Heziketa eta Euskara

Hezkuntzaz hitz egiten dugunean, orokorrean Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Unibertsitatea etortzen zaizkigu burura. Ibilbide logiko baten barruan, hori egokiena izan beharko litzatekeelakoan. Baina ezin dugu ahaztu gure hezkuntza sisteman Lanbide Heziketak daukan garrantzia lan munduan murgiltzeko tresna bezala.

Euskarari dagokionez, hasieran aipatutako ibilbide hori euskalduntzeko esfortzu handiak egin eta egiten dira, D ereduak etapa horietan guztietan ezarri. Baina ez da berdina gertatzen ari hain garrantzitsua den Lanbide Heziketan. Ziklo hauen gehiengo oraindik ere A ereduan da ofizialki, nahiz eta X ereduak izan praktikan, ziklo horietan euskarak presentziarik ez duelako (baino bai aldiz ingelesak).

Kezkagarria da Hezkuntza Sailak hartzen duen erabakia, Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 legeak hurrengo dioenean:

27. artikulua.

Prestakuntza-prozesuetako hizkuntza ofizialak.

1. Egokiro bete dadin hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko **bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea** bai, halaber, lanbide- eta lan-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea ere *–biak ala biak berariaz aintzatetsiak indarrean den legedian–, **bai euskara eta bai gaztelania ezinbestean** jasoko dira lanbide-heziketa guztiko prestakuntza-programetan, **ikasleek trebezia nahikoa garatu dezaten** ahozko zein idatzizko ulermenean eta adierazpenean, betiere, arreta berezia jarrita dagokion arlo profesionalean.*

Horri gehitu diezaiokegu Lanbide Heziketako V. euskal planean ez dela euskarari buruzko neurririk proposatzen, baina plan horren indarraldia aurten

amaituko da; beraz VI. Planean **ezinbestean** jaso behar dira ekintza zehatz eta neurgarriak. Bestela nekez eramango dugu euskara eta bere normalizazioa lan mundura eta oro har gizartera. Horrez gain, ikasleen hizkuntza eskubideak errespetatu beharko dira ere.

Datu batzuk mahai gainean jartzearren, 2020-2021 ikasturtean "sasi A" eredu horretan 21.095 ikasle daude matrikulatuta. Guztizkoaren %54a.

%21a B+ ereduan dago. Eredu hori Lanbide Heziketan baino ez da ematen. Bertan A eta D ereduetan matrikulatutakoak nahasten dira heziketa ziklo berdinean eta hiruzpalau ikasgaietan ikasleen banaketa egiten da, batzuk euskaraz eta besteek gaztelaniaz ikasi dezaten. Baino banaketa hori gertatzen ez den ikasgaietan hizkuntza eredu gaztelania hutsa da. Ondorioz, euskararekin kontaktu gabekoen ehuneko aurreko paragrafoan aipatutakoa baino handiagoa da! Adierazgarria ere bada B+ eredu B ereduaren hobekuntza dirudiela + horrekin, baina B eredu (lehen eta Bigarren Hezkuntzan) ikasle guztiek dituzte ikasgai batzuk euskaraz eta B+ delako horretan ez da hori gertatzen. Ez al litzateke egokiagoa A+ izendatzea? Eta azkenik Euskara hutsean ikasten ari direnen ehuneko **%24**koa da, nahiz eta Lanbide Heziketako euskalduntze planak 2020rako ehuneko hori **%50**ekoa izatea zuen helburu. Argi dago B+ sartzeak ez duela onura handirik ekarri.

Adibide bat jartzearren, Arabako datuei erreparaturaz gero, hamarkada batean DBHko D ereduak

EAEko hizkuntz ereduaren bilakaera (datu ofizialak). DBHn eta Batxilergoan D ereduaren gorakada nabaria da. Ez da horrela Lanbide Heziketan. Beraz DBH eta Batxilergoa D ereduaren ikasi duten ikasle askok ez du bermatua hizkuntza eredu horretan Lanbide Heziketa ikasteko aukera. →

%13a egin du gora. Lanbide Heziketako euskarazko erdi mailako zikloek %0,5 inguru behera. Nola da posible? Eta D ereduko erdi mailako zikloak 6 izatetik 3 izatera pasa dira, goi mailan aldiz 9 izatetik 8 izatera.

Bada beste datu interesgarri bat: Lanbide Heziketan D ereduak gora egin zuen EAEn 2005-06tik 2010-11ra: urtero-urtero, apur bat gora egiten zuen tarte horretan. Erdi mailako zikloetan %18,10 izatetik, %22,75 izatera. Goi mailakoetan aldiz, %17,74 izatetik, %24,65 izatera. Tarte horretan, B+ ereduak (A+ ego-kiago akaso) ez zuen hazkunderik izan. Alegia, D ereduaren geldialdia eskaintza faltak eragin duela pentsa dezagun beste arrazoi bat: Hezkuntza Sailak, arrazoia zein den argitu gabe, B+ ereduaren aldeko apustua egin du Lanbide Heziketarako 2010-11 ikasturte- tik aurrera, D ereduaren aldekoa egin behar- rean. 2010-11 ikasturtekoa izan zen Lopez Jaurlaritzan zela sozialisten esku egon zen lehenengo matrikulazio-kanpaina. Badirudi gobernu sozialistaren erabakia izan zela lanbide-heziketako D ereduaren hazkundera mugatzea, eta jeltzaleek bere horretan man- tendu dutela erabaki hura.

Hori al da Hizkuntza Normalizazioaren bidean hartu beharreko bidea? Noiz hartuko du EAJk euskararen gaia seriooki eta arduraz Hezkun- tza Sisteman? Nahi dutenean hitz politik botatzen badakite, baina errealitateari erre- paratzen diogunean datuek EAJren sinesga- rritasun falta agerian uzten dute. ■

